

Diskoak

Iker Barandiaran



U 10.
UEK.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 55'39".
10 euro.

Rock melodikoa egiazkoa eta kutsakorra da

JESUS MARI AGIRRETXE "Keu" ondarrutarrak orain dela hamar urte abiarazi zuen Uek proiektua bere baitako kantu instrumentalak, beste taldeetan lekuri ez zutenak, idazteko. Gerora, baina, Uek talde bilakatu zuen eta errepidera atera zuen, gainera. Keu-k ibilbide luzea dauka musikagintzan; horra hor, Hilobi, KTI, Psychophony, Zain, Etsaiak eta Fjord, besteak beste; baina aspaldian ñabarduraz betetako rock melodikoari ekin dio, berak

abestuta. Lan honetan azken urteotan zuzeneko kantutegian gehien eskaini dituen piezak batu ditu; eta horiei, beste batzuk gehitu dizkie: *Gordetako ilusioak*, *Gizaki ikusiezinak* eta *Zure presentzia* kantu berri rockero eta itsaskorak; Michael Jacksonen *Beat it* eta pieza instrumental eta akustiko bana. Gitarra jotzen zein melodia borobilak sortzen maisua da.

www.myspace.com/uekmusika

UEK

«Egun, ni naiz nire eragina, nire buruan ditudan melodien eta erritmoen bila ibiltzen naiz»

Nahiz eta urte ugari daramazun musika jotzen, Uek da zure sorkuntza propioaren emaitza. Hasieratik bukaerara egiten duzu guztia?

Askatasun osoz idazten ditut abestiak; abestiaren harmonia, melodia eta eskema eramaten ditut lokalerara, baina gero hiruron artean janzten ditugu. Oreak bat aurkitu beharra dago eta aberasgarria da musikari bakoitzak bere ukitua ematea.

Hastapenetan oso hard-rockeroa zinen, baina bilakaera bat izan duzu rock melodikorantz. Zer ematen dizu bakoitzak?

Rock melodikoan hobeto moldatzen naiz gauza berriak probatzeko eta aho-tsarekin melodiak sartzeko. Momentuz nahiago dut hard-rocka entzutea, baina beste estilo batzuk jotzea. Hala ere, gus-tatuko litzaidake egunen batean 70eko edo 80ko hamarka-

dako hard-rock disko bat egitea. Gaztetatik entzun dudana musika da hori.

Heltzearen diren egunak diskoarekin frontman papera hartu zenuen, lehenik eta behin mikrofonoa hartuta. Orain zer balorazio egiten duzu?

Disko horren aurretik ez nintzen mikrofonoen lagun, nahiz eta barruan beti izan gogoia abesteko. Fjord desegin zenean abestea erabaki nuen, eta oso pozik nago.

Gainera, nork esango zidan gitarra akustiko batekin bakarrik abestuko nuela agertokian...

Michael Jackson hil aurretik haren bertsio bat grabatu zenuen. Zer da berataz gehien gustuko duzuna?

Jacksonen abesti askok indar eta energia handia dute. 2008an *Beat it* erreperatorioan sartzea erabaki nuen. Uek-ekin oso bertsio gutxi izan ditugu: lehenengoa Fugaziren *Merchandise* izan zen.

Zelakoa da bila joaten zaren kantu hori?

Nik buruan daramadan talde imaginario baten abestiak entzun nahi izaten ditut. Orain dela 21 urte hasi nintzenean, eraginak argiagoak ziren. Baina gaur egun ni naiz nire eragina, nire buruan daramatzadan melodien eta erritmoen bila ibiltzen naiz; nire buruaren bertsio onena ateratzen saiatzen naiz. **n**

